

Zer egin nerabeen gaueko irteerekin.

Uda iristean, gurasoen kezka nagusienetako bat euren seme-alaba nerabeen denbora librearekin zer egin jakitea da (festak, gau-irteerak, etab). Seme-alabei irteteko baimena eman baino lehen, hurrengo gomendatzen da:

- Ordu horiek edo gauak non eta norekin pasatuko dituen jakin.
- Helduak egongo diren edo ez, eta nortzuk diren (gurasoak, lagunak edo beste) jakin.
- Gauean zehar zer egingo duten galdetu (musika, dantza...).
- Kontzertuetara edo festetara doazenean, ekitaldi horiek zein orduetan hasiko diren, zenbat denbora iraungo duten eta etxera norekin bueltatuko den galdetu.

Gurasoek euren seme-alaba nerabeei laguntzea eta beraiek ere jasotzea da egokiena. Etxetik urrun diren kontzertuak eta festak direnean, komenigarria da seme-alabak guk geuk eramatea, garraibidearekin euren kabuz konpondu daitezzen utzi baino.

- Hurrengo gomendatzen da:
 - Arau horiek ipintzeko dituzuen arrazoiak azaldu eta justifikatu. Ezarritako arauak beraiek babesteko direla adierazi eta ez zigortzeko. Arau horien aurrean kontra azaltzen badira edo axola ez zaizkiela adierazten badute ere, ez dugu amore eman behar. Normalean itxurakeria besterik ez da eta gehienek, oro har, onartzen dituzte gure gomendioak. Askatasuna nahi badute ere, gurasoak beraiengatik kezkatzen direla edo zerbait gaizki doanean hor daudela ikusten dutenean, segurtasuna sentitzen dute.
 - Haien irteerekiko interesa azaldu. Galdetu, esate baterako, kontzertua gustatu zaien edo ez, edo festan ondo pasatu duten. Horrek, gurasoek euren iritzia baloratzen dutela azalduko die eta elkarrizketa erraztuko du. Eta, alderantziz, bere bizitzako momentu batzuk beretzat gorde nahi baditu, bere erabakia errespetatu; horrek esan nahi du zuen galderak erantzun nahi ez baditu, momentuz gehiegi ez duzuela tematu behar.
- Ez da gomendatzen:
 - Ez da "tremendismoan" erori behar eta ez zaio nerabeari etxetik irtetea debekatu behar; erabaki horiek, sarritan, gure kontzientzia lasaia edukitzeko edo seme-alaben bizitzaren kontrol osoa edukitzeko izaten dira. Jokaera zorrotz horrek, askotan, gurasoen aldetik egoera batzuk bideratzeko gaitasun falta adierazten du.
 - Sarritan gurasoek ez dute onartzen seme/alaba hazten ari dela eta irtetea ez uzteak horren adierazlea da. Alderantziz, seme-alaba baten askatasuna onartzeak berarengan konfiantza osoa dutela adierazten du; bere errespetua lortzeak askatasun pixka bat eskaintzea suposatzen du, nahiz eta gu erne egon. Esan bezala, bere bizitza sozialarekiko interesa azaldu behar da, baina bere intimitatea errespetatuz.

LABURPENA

Gure bizimoduan gero eta denbora gehiago betetzen du aisialdiak, oporrak datozenean batez ere. Kontua da asti gehiago izateko posibilitate hori kaltegarri izan daitekeela nerabeak dituzten familientzako. Nerabeek gauean irtetea eskatuko dute eta gurasoek informazio egokia izan behar dute eskakizun horren aurrean nola jokatu jakiteko eta gaueko irteera horiek aisialdiko beste jarduera interesgarri batzuekin uztartu ahal izateko.

Dra. Ainhoa Manzano Fernández

Dr. Juan Luis Martín Ayala

ETXADI

Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa

Centro Universitario de Psicología de la Familia